## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**3634**

**282/2013 FORU AGINDUA, ekainaren 4koa, onartzen duena Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 21eko 160/2013 Foru Aginduak, behin betiko onartu zuenak Erriberabeitiko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, planeamenduko I.02 "Pozoscuro" eremuari buruzkoa, ezarritako baldintzak betetzea.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Martxoaren 21eko 160/2013 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onarturik geratu zen Erriberabeitiko Udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedientea, I.02 "Pozoscuro" eremuari buruzkoa.

Bigarrena.- 160/2013 Foru Agindu berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, xedatu zuen horiek zuzendu eta gero espedientea Foru Aldundiari aurkeztuko zitzaiola, berriro ere jendaurrean ipini beharrik gabe, haren eragite indarra aitortzeko eta eginbidetu eta argitara emateko.

Hirugarrena.- 2013ko maiatzaren 27an, espedientearen testu bateratua sartu zen Aldundi honen Erregistroan.

II.- OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa azterturik, egiaztatzen da aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Betetakotzat ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 21eko 160/2013 Aginduak, behin betiko onartu zuenak Erriberabeitiko Udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, planeamenduko I.02 "Pozoscuro" eremuari buruzkoa, ezarritako baldintzak.

Bigarrena.- Ebazpen hau, hirigintza arautegiarekin batera, ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Aurreko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretarako Salan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 4a.– Ingurumen eta Hirigintza saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

**Erriberabeitiko Udalerriko Planeamenduko arau subsidiarioen 334. artikuluaren idazkera berria**

334. artikulua. Plan Bereziaren baldintza bereziak

Plan Bereziak eremuaren industria erabilera orokorrari eutsio dio, baita ere ondoko parametro hauetatik eratorritako hirigintza aprobetxamendua:

Lurzatien gehieneko okupazioa, eremuaren barruan sartutako oraingo lurzoru pribatuaren ehuneko 50.

Eraikitako gehieneko azalera, 0,5 $m^2$ eremuaren barruan sartutako oraingo lurzoru pribatuaren $m^2$ bakoitzeko.

Antolamenduak eremuaren azaleraren (gaur egungo bideak barne) ehuneko 10 erreserbatu beharko du, espazio libreen toki sistemarako. Espazio hau lorategi bihurtuko da, eta bide nagusiaren ondoan egongo da. Hau da, industria erabileren eta zirkulazioaren artean, ikuspegiaren nahiz ingurunearen aldetik, iragazki lanak beteko ditu. Zuhaitzak sartuko dira bertan, eta zainketa gutxi behar dituzten landareak landatuko dira.

I02 Pozoscuro BEPB antolamendu eremuan, finkatu gabeko hiri lurzoru industrialerako espazio libreen, berdeguneen eta landarediaren toki sistemaren erreserba bete beharko da, uztailaren 3ko 1233/2012 Dekretuak, hirigintza estandarrenak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, eremu honen neurriek, okupazio mailak eta hirigintza ezaugarriek ez dutenez gero hura gauzatzen uzten, dekretu horren 5. eta 7. artikuluei jarraituz lurzoru honen balio bereko diru konpentsazioa ezartzen da.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**3634**

**ORDEN FORAL 282/2013, de 4 de junio, aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 160/2013, de 21 de marzo, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente del expediente de la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Ribera Baja en el ámbito de planeamiento I.02 "Pozoscuro".**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Por Orden Foral 160/2013, de 21 de marzo, quedó definitivamente aprobado el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja, referente al ámbito I.02 "Pozoscuro".

Segundo.- La misma Orden Foral 160/2013, considerando que las condiciones señaladas no eran sustanciales estableció que, una vez subsanadas, se elevase el expediente a la Diputación Foral sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Con fecha 27 de mayo de 2013, tuvo entrada en el Registro de esta Diputación el texto refundido del expediente.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada, se comprueba que se ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden 160/2013, de 21 de marzo, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja, referente al ámbito I.02 "Pozoscuro".

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA junto con la normativa urbanística.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de junio de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

**Nueva redacción del artículo 334 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja**

Art. 334. Condiciones particulares del Plan Especial

El Plan Especial mantendrá el uso global industrial del ámbito, y el aprovechamiento urbanístico que se deriva de los siguientes parámetros:

Ocupación máxima de parcelas el 50 por ciento del actual suelo privado incluido en el ámbito.

Superficie máxima construida 0.5 $m^2/m^2$ del actual suelo privado incluido en el ámbito.

La ordenación deberá reservar como sistema local de espacios libres una superficie equivalente al 10 por ciento del ámbito (incluido el viario actual). Este espacio se dispondrá como área ajardinada y deberá situarse junto al viario principal, de modo que suponga un filtro visual y ambiental entra los usos industriales y la circulación de paso; deberá incluir arbolado y se preverá un tipo de vegetación que exija pocos cuidados.

En el ámbito de ordenación I02 PERI Pozoscuro se cumplirá la reserva del sistema local de espacios libres, zonas verdes y vegetación para suelo urbano no consolidado industrial de acuerdo al artículo 6 del Decreto 1233/2012 de 3 de julio de Estandares urbanísticos. No obstante, dado que la dimensión, el grado de ocupación y las características urbanísticas de este ámbito no permiten su materialización, se establece la compensación económica equivalente de este suelo según los artículos 5 y 7 de dicho Decreto.